

KIROL ETA KULTUR JARDUERAK HELDUENTZAT 2019 -2020 IKASTURTEA

Matrikula eskaerak irailaren 9tik 20ra bete beharko dira online www.irura.eus atarian.

Aurten, lehenengo matrikulazioa 6 hilabetekoa izango da, hau da, 2019ko urritik 2020ko apirila arte, eta ordainketa ere epe horretakoa egingo da.

Eskaerak lekuak baino gehiago direnean interesatuen zerrendak osatuko dira eta matrikula eskubidea zozketa bidez erabakiko da.

Behar izanez gero, zozketa irailaren 23an, 11:00etan udaletxean egingo da.

Iruran erroldatutakoak lehentasun osoa izango dute. (errolda agiria aurkeztea beharrezkoa da).

6 matrikula baino gutxigoko taldeak bertan behera geldituko dira. Hala ere, udalak genero berdintasun irizpideak aplikatuz taldekatze bereziak osatu ditzake.

Hobariak, iruran erroldatutakoentzat bakarrik:

-familia ugari agiria, gazte txartela, langabeziako agiria, erretiratu agiria %20ko deskontua aplikatuko zaie (agiria aurkeztea beharrezkoa da).

- %85 edo gehiagoko ezintasuna dutenek diru laguntza jasotzeko nahi badute "aurrez izena ematea: ezinduentzako diru-laguntzak" agiria bete beharko dute udaletxean.

-trinketeko bazkideek kirol ikastaroetan %10eko deskontua izango dute (bazkideetza hobaria kirol jardueratan bakarrik izango da).

-deskontuak ez dira gainjartzen, deskonturik handiena aplikatuko da.

Ikastaroak urriaren 7eko astean hasiko dira.